

BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE

4255

EBAZPENA, 2022ko abuztuaren 30ekoa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Zuzendaritza Kontseiluak onartutako deialdia, 2021-2022 ikasturtean euskaltegi publiko eta pribatu homologatuetako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako euskararen eremu geografikotik kanpo erroladatutako ikasleei dirulaguntzak ematekoa.

Etxepare Euskal Institutua (aurrerantzean, EEI) Sortzeko eta Arautzeko apirilaren 20ko 3/2007 Legearen 3.a) artikulua ondoko helburua xedatzen du aipatutako Institutuarentzat: helburu hau xedatzen du aipatutako institutuarentzat: «Euskararen irakaskuntza, ikasketa eta erabilera mundu osoan sustatzea, hura partekatzen duten komunitate guztien ekarpenak errespetatuz».

Etxepare Euskal Institutuaren antolaketa- eta jarduera-araudia onartzen duen maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuaren 19. artikulua xedatzen du Institutuaren Euskara Sustatu eta Hedatzeko arloaren helburua dela euskara irakatsi, aztertu, erabili eta hedatzea, bai herritarren artean eta bai nazioarte mailako erakunde publikoen artean.

Ondorioz, Etxepare Euskal Institutuak erabaki du 2021-2022 ikasturtean HABEren komunikagaitasun-mailaren atalasea euskaltegiko ebaluazioan gainditu edota HABEren egiaztatze-deialdietan zein azaroaren 9ko, 297/2010 Dekretuan aurreikusitako Erakunderen batean maila baliokideak egiaztatu dituzten euskararen eremu geografikotik kanpoko ikasleei dirulaguntzak emateko deialdia egitea.

Dirulaguntza hori eta hura emateko oinarrizko irizpideak Zuzendaritza Kontseiluak onartu zituen 2022ko martxoaren 16an, eta 20201-2024 aldirako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta dago, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez. Agindu hau aipatutako sailaren webgunean argitaratu zen (https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/saileko-planak_21-24/eu-def/adjuntos/ALDAKETA-III-MODIFICACION-III-PES-2021-2024-eta-PAS-2022.pdf).

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da argitaratzea Zuzendaritza Kontseiluak onartutako deialdia, 2021-2022 ikasturtean euskaltegi publiko eta pribatu homologatuetako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako euskararen eremu geografikotik kanpo erroladatutako ikasleei dirulaguntzak ematekoa.

Ikasle hauek HABEren komunikagaitasun-mailaren atalaseak euskaltegiko ebaluazioan, egiaztatzegegintzaren eremuko deialdietan edota azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak aurreikusitako beste edozein erakunde baten deialdietan gainditu behar dituzte.

2. artikulua.– Diru-zuzkidura.

Deialdi honetarako gehienezko zenbateko orokorra hogeita sei mila eta bostehun (26.500) eurokoa izango da.

3. artikulua.– Dirulaguntzak emateko prozedura.

Dirulaguntza hauek baldintzak betetzen dituzten eskabideen artean banatuko dira, aurrekontuko zuzkidura agortu arte. Beraz, ebazpena emateko, eskabideak zein hurrenkeratan aurkeztu diren hartuko da kontuan zorrotz, dauden funtsak agortu arte. Ondorio horretarako, eskabidea erregistroan sartzen den eguna eta ordua hartuko dira kontuan.

Deialdi honen ondorioetarako, aurrekontua agortu egiten bada, EEIko zuzendariak amaitutzat joko du eskabideak aurkezteko epea. Horretarako, dagokion ebazpena argitaratuko du Eusko Jaurlaritzaren iragarki-taula elektronikoa. Ezarritako xedera bideratutako diru-funtsak agortzeak arrazoituko du erabaki hori.

Funtsa agortu eta ebazpena argitaratu bitartean eskabideren bat epe barruan jasotzen bada, hasiera batean kanporatua izango bada ere, erreserba egoeran geldituko da esleitutako dirulaguntzak onartzen ez diren kasuetarako. Ondorio horretarako ere, erregistroaren hurrenkera hartuko da kontuan.

4. artikulua.– Onuradunak.

Ebazpen honetan arautzen diren laguntzen onuradun izateko, baldintza hauek bete behar dira:

4.1.– Euskararen eremu geografikotik kanpo erroldatuta egotea.

Euskararen eremu geografikotzat hau hartuko da: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoa.

4.2.– HABEren erregistroan inskribatutako euskaltegi edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatu batean matrikulatua egotea 2021-2022 ikasturtean eta dagozkion matrikula-prezioak euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuei ikasleak norberak ordainduak izatea.

4.3.– Lagundu nahi den mailaren dirulaguntza lortzeko ikasleak egin duen ikastaroari dagokionez:

a) Oro har, gutxienez 50 ikastordu hartuak eduki beharko ditu, eta udako ikastaroetan 30 ordu.

b) Asistentziari dagokionez, gutxienez ikastaroaren % 75eko betetze-maila izan beharko du: aurrez aurreko ikasjardunean, gutxienez, euskaltegiak emandako ikastorduen % 75 hartuak izan beharko ditu; eta autoikaskuntzan, berriz, mintza-saioretan izandako asistentzia orduekin, gutxienez ikastaroaren ordu teoriko guztien % 7,5era iritsi.

4.4.– HEOC-ak (Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum) ezarritako mailen egiaztatze agiriak lortzea 2021-2022 ikasturtean, HABEren egiaztatze-deialdietan edota euskaltegi edo autoikaskuntzako zentroen deialdietan edota azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak aurreikusitako beste edozein erakundeen deialdietan.

4.5.– Zigor eta administrazioaren arloan dirulaguntza publikoak jasotzeko debekurik ez izatea, ezta laguntzak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik ere, sexua dela-eta eragindako bereizkeriengatikoak barne direlarik, hain zuzen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatutakoarekin bat etorritik.

4.6.– Dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikulua 2. atalean aipatutako egoeretan ez egotea. Eta zehazki, zerga guztiak ordainduta edukitzea eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatea, baita EAEko Administrazio Orokorrarekiko dirulaguntzak itzultzearen ondoriozko obligazioak ordainduta izatea.

4.7.– Baldintza horiek guztiak jasotako dirulaguntzaren kitapena eman arte bete beharko dira, ez bakarrik onuradun-izaera izan ahal izateko, baita izaera horri eusteko ere.

4.8.– Dirulaguntzen deialdi honetatik at geldituko dira:

4.8.1.– Herri Administrazioak finantzatuta eskolatu diren ikasleak.

4.8.2.– Aurreko ikasturteren batean egiaztatutako maila bera edo beheragoko bat bakarrik egiaztatu duten ikasleak.

5. artikulua.– Jarraibidea, agiriak eta eskabideak aurkezteko epeak.

5.1.– Baliabide elektronikoak erabili ahal izango dira, zein aurrez aurrekoak, eskabidea egiteko, kontsultak egiteko edo deialdi honi buruzko edozein izapide egiteko.

a) Aurrez aurre: eskabideak helbide honetan aurkeztuta: Etxepare Euskal Institutua, Andre Zigarrogileen Plaza 1, Tabakalera eraikina, 3. solairua (20012 Donostia), goizeko 8:30etatik 14:00etara. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Zuzenean bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan.

Aurrez aurreko eskabideetarako, aurretiazko hitzordua eskatu beharko da.

b) Bide elektronikoa: euskadi.eus gunean, artikulua honetako 5.2 atalean adierazitako helbidean, aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Eskabidea aurkezterakoan bide bat edo bestea erabili, aurrez aurrekoa edo elektronikoa, eskatzaileak prozedurako edozein unetan aldatu ahal izango du ordura arteko hautatutako bidea.

5.2.– Eskabideak aurrez aurre edo bide elektronikoa erabiliz aurkeztu, formularioa eta argibideak euskadi.eus egoitza elektronikoen ondorengo helbidean egongo dira eskuragai:

www.euskadi.eus/zerbitzuak/1203701

Eskabideen ondoko izapideak gune honetan egingo dira bide elektronikoa erabiliz gero:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.3.– Eskatzaileak euskara edo gaztelania erabili ahal izango du eskabidean eta gainerako agirietan. Halaber, eskabidearen ondoriozko jardunetan, eta prozedura osoan, eskatzaileak aukeraturako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

5.4.– Identifikazio elektronikorako, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen onartutako eta argitaratutako bide elektronikoren bat izan behar du eskatzaileak.

Salbuespen gisa, dirulaguntza hauen eskatzaileak garapen teknologikoko maila oso desberdinak dituzten herrialde ugarian egon daitezkeenez, herrialde bakoitzari aplikatu dakioken legediaren arabera eratuta daudenez eta Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen egoerarekin parekatu ezin diren ezaugarri legal, tekniko eta funtzional desberdinak dituztenez, eskabideak elektronikoki aurkeztea eragozten eta eragozten dutenak, eskabideak epe barruan aurkeztu izana egiaztatzen duen edozein bide erabiliz aurkeztu ahal izango dituzte.

5.5.– Eskabideak aurkezteak esan nahiko du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

5.6.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat etorritik, interesdunek eskubidea dute ez aurkezteko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazioak egindakoak diren agiriak. Agiri horiek administrazioak berak kontsulta edo atera ahal izango ditu, interesdunak kontrakoa adierazi ezean. Kontrakoa adieraziz gero, eskatzaileak aurkeztu beharko ditu.

5.7.– Aurkeztu beharreko dokumentuak:

- Euskararen eremu geografikotik kanpoko errolda agiria.
- Kontu Korrontearen titulartasuna egiaztatzen duen agiria.
- Ikastaro(ar)en matrikul(ar)en ordainagiri kopia(k).
- Ikastaro(ar)en ziurtagiria(k) ondoko zehaztapenekin: maila, ordu kopurua, ikastaro(ar)en asistentzian gutxienez % 75eko betetze-maila gainditu izana aurrez aurrekoetan eta % 7,5eko betetze-maila autoikaskuntzan.
- Egiaztatutako mail(ar)en agiria(k).

Aurkeztutako dokumentuek, aurrez aurre edo elektronikoki aurkeztutakoek, baldintza hauek bete behar dituzte:

- Deskargagarriak diren ereduak erabiliko dira, halakorik dagoenean, eredu formatuan.
- Gainerako dokumentazioa, ahal bada, pdf formatuan aurkeztuko da.
- Dokumentazio elektronikoko guztien gehieneko tamaina 30 Mb-koa izango da.

5.8.– Eskabideak aurkezteko epeak.

Eskabideak aurkezteko hilabeteko epea egongo da, EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

6. artikulua.– Aurkeztutako eskabideko hutsuneak zuzentzea.

Etxepare Euskal Institutuak ikusten badu eskabidea onartzeko eskatzen den dokumentazioan zerbait falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar egun balioduneko epea emango dio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo dio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez.

7. artikulua.– Dirulaguntzen organo kudeatzailea.

Etxepare Euskal Institutuko Euskara Sustatzeko eta Hedatzeko Arloari dagokio deialdi honen bidez emango diren dirulaguntzak kudeatzea.

8. artikulua.– Dirulaguntza esleitzeko eta neurtzeko irizpideak.

8.1.– Gainditu edo egiaztatu den maila bakoitzeko, ikasleak 2021-2022 ikasturtean matrikuletan ordaindutako kopurua eskura dezake, gehieneko muga hauekin:

- HABEren A1 maila: 600 euro.
- HABEren A2 maila: 800 euro.

- HABEren B1 maila edo baliokidea: 900 euro.
- HABEren B2. maila edo baliokidea: 1.000 euro.
- HABEren C1 maila edo baliokidea: 150 euro.
- HABEren C2 maila edo baliokidea: 100 euro.

8.2.– Maila bakoitzerako ikasketak behin bakarrik lagunduko zaizkio diruz ikasleari bere ibilbide osoan zehar.

9. artikulua.– Ebazpena, jakinarazpena eta dirulaguntzaren ordainketa.

1.– EEIko Euskal Kultura Sustatzeko eta Hedatzeko Arloari dagokio dirulaguntza lortzeko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea eta eman beharreko laguntza kalkulatzea, EEIren zuzendariak dagokion ebazpena eman dezan.

2.– Dirulaguntzak esleitzeko ebazpena banaka jakinaraziko zaie interesdunei eta Eusko Jaur-laritzaren iragarki-taula elektronikoa ere argitaratuko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

3.– Gehienez bi hilabeteko epean eman eta jakinaraziko dira ebazpenak, eskabidea behar bezala betetzen den egunetik aurrera. Epe hori jakinarazpenik gabe igarotzen bada, eskabideak ezetsizat joko dira, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51.9 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

4.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta erakunde autonomoek izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzulketa-edo zehapen-prozedura. Prozeduraren amaieran laguntza publikoak jasotzeko desgaiakuntza edo itzultzeko betebeharra ezartzen bada, eta itzulketa ordainketa egiteko borondatezko epean egiten ez bada, baldintzapean emandako dirulaguntza indargabetu egingo da, onuradun izateko debekua dakartelako.

10. artikulua.– Dirulaguntza onartzea.

Ebazpenak jakinarazten den egunetik hasi eta hamabost eguneko epean onuradunak berariaz uko egiten ez badio, dirulaguntza onartu egin duela ulertuko da eta ordainketa bakarrean kitatuko da banku-transferentzia bidez.

11. artikulua.– Bateragarritasuna.

Emango den dirulaguntza bateragarria izango da xede berarekin jaso daitekeen beste edozeinekin, baldin eta gainfinantzaketarik ez badago laguntzen den xedearen guztirako kostuan. Horrelakoetan, dagozkion kenketak egingo dira, aldea ez ordainduz edo dagokion kopurua itzultzeko eskatuz.

12. artikulua.– Onuradunaren betebeharrak.

12.1.– Onuradunek, oro har, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 14. eta 46. artikuluetan eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan jasotakoak bete beharko dituzte.

12.2.– Eta zehazki, ebazpen honetan araututako dirulaguntzen onuradunek beti izango dituzte honako betebeharrak hauek:

12.2.1.– Laguntza eman duen erakundeak egingo dituen egiaztatzeen menpe eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak burutuko duen ikuskaritzaren menpe egon beharko du, deialdi honen bitartez eskuratu diren dirulaguntzei dagokienez. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziko neurrien menpe ere egon beharko du.

12.2.2.– Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzak eskuratuz gero, horren berri eman beharko dio Etxepare Euskal Institutuari.

12.2.3.– Laguntza ematerakoan kontuan izandako dena delako egoera objektibo edo subjektiboa aldatu egin bada, horren berri eman beharko dio Etxepare Euskal Institutuari.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Eskatutako dirulaguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta, 2. artikuluan ezarritako zenbateko osoa handitu ahal izango da, baldin eta EEIren beste dirulaguntza deialdi batzuk esleitu ondoren aurrekontu-izakinak agortu ez badira. Adierazitako aldaketaren berri EEIren zuzendariaren ebazpenaren bidez emango da EHAA.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Datu pertsonalak erabili egingo dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Euskara eta euskal kultura sustatzeko eta zabaltzeko laguntzak eta dirulaguntzak.

Arduraduna: Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute

Helburua: Etxepare Euskal Institutuak sustatutako laguntzak eta dirulaguntzak eskatzen eta jasotzen dituzten pertsona fisikoen edo pertsona juridikoen legezko ordezkarien zerrenda bat izatea.

Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da, aplikagarriak diren lege-eginbideak betetzeko.
- Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- 3/2007 Legea, apirilaren 20koa, Etxepare Euskal Institutua Sortzeko eta Arautzekoa (2007/05/10eko EHAA, 89. zk.)

Hartzailea: Ez da daturik lagatzen.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: web-orri honetan kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/057300-ca-pa2-eu.shtml>

2022ko urriaren 3a, astelehena

Araudia:

- Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

ID: 0573

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek EEIko Zuzendaritza Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Donostia, 2022ko abuztuaren 30a.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,
IRENE LARRAZA AIZPURUA.